

HIZKUNTZA-ESKIZUNAK:

Kontratazio-zerrende⁽¹⁾ eta zerbitzu-eginkizunei eta aldi baterako barne-sustapenari⁽²⁾ dagokien indarreko araudiaren arabera, jakinarazten da euskeraren hizkuntza-tituluak egiaztatzen dituzten ziurtagiriak aurkezteko epea zabalitzen dela. Hona hemen horretarako jarraibideak:

- Eskabideak aurkezteko **epea martxoaren 11tik 23ra arte** egongo da zabalik, biak barne. Epez kanpo aurkezten diren eskabideak ez dira baliodunak izango.
- Jarraian **eskabide-eredu bat** jartzen da pertsona interesatuen eskura. Eskabideari euskera-maila egiaztatzen duen dokumentuaren **fotokopia sinplea** gaineratu behar zaio, baina euskeraz egindako ikasketa ofizialen egiaztagiriei dagokienez, **fotokopia konpultsatua** aurkeztu beharko da.
- **Eskabide bakarra** nahikoa izango da izangaiak izena emanda dauden zerrenda guztietarako.
- **Osakidetzak 2014.era arte (barne) egindako deialdietan hizkuntza-eskakizunen bat** egiaztatu dutenek **ez dute** eskabiderik edo dokumentaziorik **aurkeztu beharko**, eskuratutako hizkuntza-eskakizunak **ofizioz** zenbatuko baitira. Berdin jokatu da Osakidetzak **baliokidetutako** euskeraren ezagutza-tituluekin.
- Halaber, **2014ko kontratazio zerrendetarako** hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu dutenek **ez dute orain aurkeztu behar**.
- Aintzat hartuko dira eskabideak aurkezteko azken egunera arte egiaztatutako euskera-mailak, ondoko hauen arabera: **67/2003 Dekretua, martxoaren 18koa, euskararen erabilera Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan normalizatzeko; 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena, eta gai honi dagozkion gainerako arauak.**
- **Euskera-maila egiaztatzeko dokumentuak entregatu** eta Osakidetzako hizkuntza-eskakizunekiko baliokidetasuna aitortu ondoren, Datuak Babesteko Euskal Agentzian erregistratutako **“Lanpostuak hautatu eta hornitzea”** eta **“Giza baliabideen kudeaketa integratua” fitxategietan sartuko dira**. Pertsona interesatuek eskubidea izango dute fitxategietako datuetara sartzeko, aldatzeko edo ezeztatzeko; horretarako, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendaritzara jo beharko dute. Araba kalea, 45 – 01006 Vitoria-Gasteiz.
- Euskera-maila egiaztatzeko dokumentuak aurkezten dituztenek **berariazko baimena** ematen diote Osakidetzari fitxategi horietara sartzeko, **dokumentuen egokitasuna ziurtatu ahal izan dezan**.

- Zerrenden **aldaketa** zerrenda berriak argitaratzen direnean gauzatuko da, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web-orrialdean. Hortik aurrera, zerrenda hauek egongo dira indarrean.

ESPERIENTZIA:

Aurrekoez gain, jakinarazten da 2014ko kontratazio zerrendetan zenbait kategoria ireki ez diren arren, horietan Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan izandako esperientzia profesionala eguneratuko dela. Ez dago aurreikusita **gainerako administrazio publikoetan** egindako zerbitzuak sartzea.

Eguneratze hau **ofizioz** egingo da, 2014ko abenduaren 31ra arte, hau da, pertsona interesatuek ez dute inolako dokumentaziorik aurkeztu beharko.

2011ko maiatzaren 9an, Administrazio Batzordeak hitzartutakoaren arabera, arestian aipatutako eguneratzea ondorengo prozesuetan bakarrik izango ditu ondorioak: Aldi-baterako Kontratazio zerrendak (2014ko kontratazio zerrendetan eskaini ez diren kategoriak), Zerbitzu Komisio zerrendak eta Aldi-baterako Barne Sustapen zerrendak.

Vitoria-Gasteizen, 2015ko martxoaren 10ean.

(1) 2011ko maiatzaren 9ko Erabakia, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoko Administrazio-Kontseiluarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzeari buruz (10.4 atala).

2004ko urtarrilaren 26ko Erabakia (9.3 atala), 2008ko maiatzaren 29ko Erabakiak egokitutakoa, biak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio-Kontseiluarenak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzeari buruz.

(2) ERABAKIA 2011ko maiatzaren 9koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko administrazio Kontseiluarena, Osakidetza-Osasun zerbitzua Ente Publikoko zerbitzu-erakundeetan lanpostuak zerbitzu-eginkizunen eta aldi baterako barne-sustapenaren bitartez betetzeko irizpideak eta behin betiko barne-mugikortasun bitartez lanpostuak betetzeko irizpide orokorrak onartzen dituena (I. ataleko 6.4 art. eta II. ataleko 3. art., 6. par.).

HIZKUNTZA ESKAKIZUNEN EGIAZTAGIRIEN AURKEZPENA
PRESENTACIÓN DE ACREDITACIONES DE PERFILES LINGÜÍSTICOS
ALDI BATERAKO KONTRATAZIO-ZERRENDAK, ZERBITZU EGINKIZUNAK ETA ALDI BATERAKO BARNE SUSTAPENA
LISTAS DE CONTRATACIÓN TEMPORAL, COMISIONES DE SERVICIO Y PROMOCIÓN INTERNA TEMPORAL

| | |
|-------------------------------------|-----------------------|
| IZEN-ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS: | NAN / D.N.I.: |
| HELBIDEA / DOMICILIO: | TELEFONOA / TELÉFONO: |
| KATEGORIA (K) / CATEGORIA (S): | |

ADIERAZTEN DU

Goian aipaturiko kategori(et)ako zerrenda(k) aldatzeko, ondorengo dokumentazioa (*) aurkezten du. Halaber, Osakidetzari baimena ematen dio euskarako ziurtagiri eta tituluei buruz aurkezten duen informazioa dagokien erakundeetan egiaztatua izan dadin eta Osakidetzaiko Pertsonalaren Erregistroan erregistratua izan dadin

EXPONE QUE:

Presenta la siguiente documentación (*), a efectos de modificación de la(s) lista(s) de la(s) categoría(s) mencionada(s) arriba, y da autorización para que la información que aporta sobre certificados y títulos de euskera sea verificada en los correspondientes organismos y registrada en el Registro de Personal de Osakidetza:

1. HIZKUNTZ ESKAKIZUNA-B1
PERFIL LINGÜÍSTICO 1º-B1

| | |
|---|---|
| IVAPek egiaztatutako 1. HE | PL 1 acreditado por el IVAP |
| HABEren 1. Maila (B1) | Primer nivel (B1) de HABE |
| HEOren Tarteko maila (B1) | Nivel Intermedio (B1) de las E.O.I. |
| HEOren 3. maila. HEOen antzinako plana | Certificado 3er curso EOI. Plan antiguo de las E.O.I. |
| Ikasketak euskaraz: DBH edo Teknikaria (B1) | Estudios en euskera: Graduado en ESO o Técnico (B1) |

2. HIZKUNTZ ESKAKIZUNA-B2
PERFIL LINGÜÍSTICO 2º-B2

| | |
|---|--|
| IVAPek egiaztatutako 2. HE | PL 2 acreditado por el IVAP |
| HABEren 2. Maila (B2) | Segundo nivel (B2) de HABE |
| Ertzaintzaren 1. HE | PL1 de la Ertzaintza |
| Irakaspostuen 1. HE eta baliokideak (IGA eta GUMA) | PL 1 del Sector Docente y equivalentes (IGA Y GUMA) |
| HEOren 4. maila egiaztatutakoa. HEOen antzinako plana | Certificado 4º curso EOI. Plan Antiguo de las E.O.I. |
| HEOren maila Aurreratua (B2). | Nivel Avanzado (B2) de las E.O.I. |
| HLEA Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria | HLEA Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria |
| Ikasketak euskaraz: Batxilergoa edo Goi Mailako Teknikaria (B2) | Estudios en euskera: Bachiller o Técnico Superior (B2) |

3. HIZKUNTZ ESKAKIZUNA-C1
PERFIL LINGÜÍSTICO 3º-C1

| | |
|--|--|
| IVAPek egiaztatutako 3. HE | PL 3 acreditado por el IVAP |
| HABEren 3. Maila (C1) | Tercer nivel (C1) de HABE |
| Ertzaintzaren 2. HE | PL 2 de la Ertzaintza |
| EGA eta hurrengo baliokideak: | EGA y los siguientes equivalentes: |
| - Labayru ikastegiaren 3.a, 1982/09/19 baino lehen emana | Tercero del Instituto Labayru, anterior al 19/09/1982 |
| - Euskal Filologiako lizentziatura | Licenciatura de Filología Vasca |
| - EAEn lortutako Euskal Filologia alorreko Irakasle-Diplomatura | Diplomatura de Magisterio, Especialidad Filología Vasca, realizada en la CAV |
| - Irakasle-Diplomatura, euskaraz egina, nahiz Bizkaiko edo Gipuzkoako Irakasleen Unibertsitate Eskola Publikoan 1985etik aurrera lortutakoa, nahiz Donostiako OHOKo Elizbarrutiko Irakasle Eskolan edo Eskoriatzako OHOKo Irakasle Eskolan 1984tik aurrera lortutakoa. | Diplomatura de Magisterio, cursada en euskera, bien en la Escuela Pública de Magisterio de Bizkaia o Gipuzkoa, obtenido a partir de 1985, o bien en la Escuela Diocesana de Magisterio de San Sebastian o en la Escuela de Magisterio de Eskoriatza, obtenido a partir de 1984 |
| Euskaltzaindiaren "D" agiria | Certificado "D" de Euskaltzaindia |
| Irakaspostuen 2. HE eta baliokideak (EIT) | PL 2 del Sector Docente y equivalentes (EIT) |
| HEOren Gaitasun maila edo 5. maila. HEOren antzinako plana | Certificado de Aptitud o 5º curso de las EOI. Plan antiguo de las E.O.I. |
| HEOren Gaitasun Maila (C1). | Certificado de Nivel de Aptitud (C1) de las E.O.I. |
| Ikasketak euskaraz: Unibertsitatea (Diplomatura, Lizentziatura) (C1) | Estudios en euskera: Universidad (Diplomatura, Licenciatura) (C1) |

4. HIZKUNTZ ESKAKIZUNA-C2
PERFIL LINGÜÍSTICO 4º-C2

| | |
|--|--|
| IVAPek egiaztatutako 4. HE | PL 4 acreditado por el IVAP |
| HABEren 4. Maila (C2) | Cuarto nivel (C2) de HABE |
| Ikasketak euskaraz: Doktore Tesia, Filologia, Itzulpenlengintza (C2) | Estudios en euskera: Tesis Doctoral, Filología, Traducción. (C2) |

* Erantsitako dokumentazioa kopia hutsa izan behar da euskara ikasketena izan ezik; azken hau egiaztatutako dokumentazioa izan behar delako

* La documentación aportada debe ser fotocopia simple, salvo la de estudios en euskera la cual debe ser fotocopia compulsada.

(e)n 2015eko _____ aren ____ (e)an

En _____, a ____ de _____ de 2015

Sinadura

Erregistro Zigilua

Sello de Registro

Firma